



## Gizarte zer...?

Komunikatzeko gaitasuna daukat. Asertiboa naiz. Enpatikoa naiz. Entzute aktiboa oso landua dut. Nire erabiltzaileen beharrak aurreikusi eta artatzeko gaitasuna daukat. Sormenez beterik nago. Iniziatibak mugitzen nau. **Hala ere**, gaitasun guzti horiek ez dira nahikoak lan munduan txertatzeko.

Hezkuntza arloan lan egin dezaket. Mendekotasuna duten pertsonekin lan egin dezaket. Ezintasun fisiko eta mentala duten pertsonekin lan egin dezaket.

### Goi Mailako Gizarte Integratzaile teknikaria naiz.

Hau da nire errealitatea.

Gure lanpostua beste edozein bezain duina, errespetagarria eta beharrezkoa da. Jendarteak gure lana zein den ezagutu eta onartu beharra dauka. Maiz, gure zerbitzuak boluntarioki egitea eskatzen zaigu. Eskatuko al zenioke arkitekto bati erosketak egiten dituzun supermerkatua dohainik eraiki dezan? Orduan, zergatik eskatzen diguzue pertsonekin dohain lan egiteko?

Gaur egun, ez daukagu lan hitzarmenik. Lan batean sartzera-koan, gure profila ez da kontuan hartzen. Hala ere, gure zerbitzuak geroz eta gehiago eskatzen ditu gizarteak. Itzalpean egi-ten dugu lan.

Hemen gaude, gizarteratze teknikariak gara. Gure lanak balio du, baloratu.

2.mailako Gizarteratzeko ikasleak

## Buru gaixotasunen bukaera, gertu al dago?

2016ko irailean Donostian ospatu den *Passion for knowledge*-en Rafael Yustek berak azaldu zuen bezala jakin ahal izan dugu, neurobiologo hau, Obamarekin elkartu dela *Brain* proiektuari buruz hitz egiteko. Teknologia berriei esker, 2028an espero da buru gaixotasu-  
nak sendatzeko gai izatea.

Rafael Yuste neurobiologoa munduko zientzialari handienetako bat da, eta bere ideiek Obamaren administrazioa liluratu dute, *Brain* jardueran parte hartze-raino. Yustek giza garuna mapeatzeko eta honen sekre-  
tu guztiak aztertze prestatu duen proiektua da.

*Brain* BAM-a proiektutik jaio zen. 2011ko irailean agertu zen ekimen honen helburua nerbio-sistemako neurona guztien jarduera, batera neurtzea zen; eta lor-  
tu dute. Hydra baten neurona guztien jarduera neurtu dute, existitzen den nerbio-sistema jatorrizkoena. «Ha-  
markada batean hori ugaztun baten burmuin azalean egiteko gai izango gara, baina zatika», baieztatzen du Yustek.

*Brainek* kulturaren aldaketa bat eragingo du, baita gi-  
zartearen historian ere, garuna ulertzeagatik. Hau lor-  
tzean gizartea bera ulertuko da, humanismo berria izango da. Honen emaitzak, Giza Genomarenak beza-  
lakoak edo handiagoak izatea espero da, eta denboral-  
di txikiagoan.

Iturria ezagutzen dugu baina ez informazioa, mila zientzialari elkarlanean ari dira, hizkuntza ezezagun bat da deszifratu nahi dutena, kode hau ulertzeko, da-  
goen konexioa aztertzen da. Zientzia hesi berri batera iristen ari da, eta horrela gure kontzientzia ezagutzera heldu ahal izango gara.

Orain arte, informazioa banaka erregistratzen zen eta ondoren konparatu, baina baterako jarduera da, ezin da banaka ebatzi, baizik eta enigma ebazteko, des-  
zifratu eta informazioa kontrastatu behar da.

Tekniken oinarriak jartzeko momentua da, hau behin eginda, posible izango da burmuin azalean sar-  
tzea zati kaltetua konpontzeko. Ezezagunak ikaritzen gaitu, burmuin azala atalik handiena baita, memoria mota asko hor daude, baina aurrera ateratzeko erre-  
mintak ditugu. Helburua buruaren funtzionamendua ulertzea eta gaixoei laguntzeko aukera izatea da.

Maite Agirre eta Mireia Iturain  
Farmazia 1 ikasleak